
SAREEN SAREA, COVID19AK EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEAN IZANDAKO ERAGINAREN AURREAN



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Iparragirre, 9
48009 Bilbao
Tel. 946 569 230
info@sareensarea.eu
www.sareensarea.eus



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

1. HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA COVID19AK ERAGINDAKO ERAGINAREN AURREAN

I. HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN GAINEKO OHARTARAZPEN OROKORRAK

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko 6/2016 Legearen arabera, honakoek osatzen dute sektorea: esku-hartze sozialeko jardueren bidez, zaugarritasun- edo eskusio-, ezberdintasun-, babesgabetasun-, desgaitasun- edo menpekotasun-egoeran dauden pertsonen, familien, taldeen, kolektiboan edo komunitatean inklusio soziala, garapenerako lankidetzeta eta eskubideen gauzatzeko eraginkorra sustatzea helburu duten gizarte-ekimeneko erakundeak, egoitza eta jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan dutenak.

Ia **4.000 entitatek** eta **138.600 boluntariok** osatzen dute Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala, eta **38.525 profesional** enplegatzen ditu. 2018an **1.736 milioi euroko** bolumen ekonomikoa kudeatu zuten, **EAEko BPGren % 2,3**.¹

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Legeak kontuan hartzen ditu sektoreko erakundeek ekarpen historikoa, euskal sektore publikoarekin duten harremana eta ardura publikoaren gaineko sistemetan duten parte-hartzea eta osaketa. Hori dela eta, ekimen sozialeko erakundeek administrazio publikoarekin lankidetzan jarduteko eta kolaboratzeko bokazioa eta zilegitasuna dutela onartzen du, era berean.

Bestetik, erakunde hauen bidez gizarte zibila gobernantzara sartu izanaren ekarpena ere nabarmentzen du legeak, administrazio-eredu ireki baterantz pausoak emateko eta demokrazian sakontzeko. *“Zentzu honetan, Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek sektore publikoarekin kolaboratzen dute eta kolaboratu behar dute politika sozial publikoen inguruko erabakiak hartu behar direnean, eta gizarte- eta garapen-ereduaren inguruko eztabaida sozialean parte hartu behar dute”.*

II. HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA ETA COVID-19A

• Balorazio orokorra

Koronabirusaren pandemiak zaugarritasun-egoeran dauden pertsonen eragiten die, eta, ondorioz, haien eskubideak babesteko eta bermatzeko lan egiten duten erakundeak. Hori dela eta, osasun-larrialdiaz gain, larrialdi soziala ere jasaten ari da gizarteak.

Hirugarren Sektore Sozialak ezinbesteko zerbitzuak eskaintzen ditu, eta pertsona zaugarrienak babesten ditu. Krisi guztietan, baita honetan ere, erakunde sozialen lana

¹ 2019ko Barometroaren Txostena. *Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia*. 2020ko urtarrila.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

izugarria da, eta gizartearen jarraitutasun eta ongizatearentzako funtsezkoa. Gainera, kalean bertan egiten duten lanak pandemiak sortutako arazoan eragin errealak sakon ezagutzeko aukera eskaintzen die. Hori dela eta, ezinbestekoa da agintariek, Hirugarren Sektorre Sozialak eta gainerako eragileek elkarren artean hitz egitea, bereziki, beharrezko kontingentzia-neurrien diseinuari eta aplikazioari buruz.

Bestetik, botere publikoaren laguntzaile garrantzitsua eta ordezkaria da sektorea, pandemiaren eragin negatiboa murrizteko eta kaltetutako pertsonak azkar suspertzeko. Horregatik, ezinbestekoa da erakunde sozialek eskaintutako zerbitzuak funtsezkotzat hartzea eta haien garrantzia nabarmentzea.

Hala, Hirugarren Sektorre Sozialak zailtasun ugari ditu pertsonak artatzeko, eta erakunde batzuek egoera konplexua bizi dute kolektibo zaurgarrien arreta bermatzeko. Erakunde horien izateko arrazoiak are premiazkoagoak da orain. Ondorioz, indartu egin behar da sare eta erakunde guztien ahaleginen koordinazioa.

Haien lana funtsezkoa da zaurgarritasun- eta pobrezia-egoeran dauden pertsonen eskubideen babesa bermatzeko, eta erakundeek artatzen dituzten milaka pertsonen oinarriko beharrei erantzuteko, baina bitartekoak behar dira ahalik eta segurtasun handienez egiten jarraitu ahal izateko eta profesionalak, boluntarioak zein arreta jasotzen duten pertsonak babesteko.

Krisi honek sortutako shockak, ordea, gelditu, aldatu edo birbideratu egin du kontratatutako, hitzartutako eta/edo diruz lagundutako programa eta zerbitzu askoren funtzionamendua. Ondorioak larriak izaten ari dira (ABEEak, justifikazioak, finantzaketa- eta adiministrazio-zailtasunak), eta epe ertainean jarduera murriztea eragin dezakete, edo are zerbitzu edo erakunde batzuk desagertzea.

Egiten duten lanaren balioa inoiz baino gehiago erakusten ari dira erakundeak. Izan ere, gai izaten ari dira neurri honetako larrialdi sozialaren aurrean presaz eta beste erakunde batzuekin batera antolatze eta koordinatzeko, krisi honek eragindako agertoki-aldaketak gehien kalte ditzakeen pertsonak ahalik eta inpaktu txikiena izate aldera: menpekotasuna edo nahi gabeko bakardade-egoera bizi duten edo bizitzeko arriskua duten adineko pertsonak, baztertze-egoeran dauden pertsonak, haurrak eta nerabeak, genero-indarkeria jasaten duten emakumeak eta haien seme-alabak, desgaitasuna duten pertsonak, gaixotasun mentalak dituztenak, etab.

- **Hartzaileengan izan duen eragina.**

Itxialdiak eragindako arazoak (bat-batean gertatutako edo areagotutako arazo psikologikoak, gatazkak, arreta-gabezia, erreferenteak galtzea, etab.), **arrakala digitalarekin** zerikusia dutenak (Internetarako konexiorik edo ordenagailurik ez izatea, tresna horiek erabiltzeko mugak izatea, informazio falta, eskola-atzerapena, etab.), eta



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

baliabide ekonomikoen gabeziarekin lotutakoak. Horiek dira orain erakunde gehienek hartzaileengan identifikatzen dituzten egoerak.

Testuinguru honetan, honako arazoak eta aurrerago azalduko ditugun beste batzuk ere badituzte erakundeetako hartzaileek: **etxeko arretarik eza; nahi gabeko bakardadea edo laguntza-sareen gabezia; enplegua galtzea; ostatu, etxebizitza eta/edo egoitza-bazterkeriarekin** lotutako arazoak; **osasuna galtzea** edo **pobreziaren areagotzea eta/edo materialik ez izatea.**

- **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan izan duen eragina**

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek hartzaileei bideratutako zerbitzuak ematen dituzte eta jarduerak garatzen dituzte. Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiaren “*Covid-19aren eragina Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan*” txostenak pandemiak erakundeetan izan duen eragina nabarmentzen du:

***Zerbitzu eta jardueretan izandako eragina**

-Zerbitzu edo jarduerak aldatzea edo berriz orientatzea.

-Jarduerak bertan behera uztea edo atzeratzea.

-Ia erdiek zerbitzuak itxi behar izan dituzte.

-Erakunde batzuek zerbitzu edo jarduera berriak txertatu dituzte sortutako beharrei aurre egiteko.

-Osasun arloko material-gabezia.

-Zuzeneko arretako gainkarga areagotu egin dela ikusten da, baita zerbitzu edo jarduera berriak gehitu izana ere.

- Zerbitzuen eskaintzaz gaindiko beste funtzio sozial batzuei lotutako jarduerak gora egin du (beharrak atzematea, sentsibilizazioa, salaketa edo eskubideen sustapena).

-Zerbitzuen hartzaileen eskaeretan izandako aldaketak.

-Erakundeek eskaintzen dituzten zerbitzuek eta jarduerak harremanen ikuspegitik duten balioa nabarmentzekoa da; alderdi hori bereziki kaltetu du Covid-19aren krisiak. Aurrez aurreko laguntza-zerbitzuak itxi eta “birsortu” egin behar izan dute erakundeek: aurrez aurreko lotura hori lotura telematikoko bilakatu behar izan dute, ahal izan duten neurrian, hartzaileengandik gertu egoten jarraitu ahal izateko.

***Boluntarioen eta ordainpekoen artean izan duen eragina**

Boluntarioek eta ordainpekoek osatzen dituzte Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetako lantaldeak. COVID-19aren krisialdia hasi zenetik, haien egoerak hainbat eratako kalteak izan ditu, eta erakundeek hainbat arazori egin behar



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

izan diete aurre, lantaldeak kudeatzeari dagokionez. Horien artean, honakoak dira gehien zabaldukoak: **lan-baldintzek izandako aldaketa nabarmenen eraginez jarduerak kudeatzeko izandako zailtasunak** (tehelana, kontziliazioa, etab.), **arrisku psikosozialak** (estres-egoerak, higadura emozionala...) **eta kontratazio-baldintzetan izandako aldaketak.**

***Finantzaketarekin eta baliabide ekonomikoekin lotutako inpaktua**

-**Finantzaketaren eta baliabide ekonomiko publikoen gaineko ziurgabetasuna nabarmena da.** Era berean, nabarmentzekoak dira finantzaketa propioaren % 10etik gorako egungo murrizketa eta ordainketa publiko zein pribatuatan aurreikusi dituzten atzerapenak.

-Oraingo eta etorkizuneko **kontratuak, hitzarmenak edo diru-laguntzak bertan behera geratzearen beldurra** dago, horrek arriskuan jartzen baitu proiektu batzuek aurrera egitea eta jendea kaleratzea eragiten baitu.

-**Zerbitzu batzuetako kontratuak edo diru-laguntzak ordaintzeko moduaren ondorioz gertatutako likidezia-falta larriagotu egin liteke datozen hilabeteetan.** Kreditu-lerroak areagotzen ari dira, altxortegiaren larrialdiari eta arazoei aurre egin ahal izateko.

-**Jardueren eta zerbitzuen bideragarritasunak kezka handia eragiten du.** Hala ere, erakundeek gaitasun handia erakutsi dute testuingurura egokitzeko, kasu batzuetan haien burua berrasmatzeko eta hartzaileei erantzunak eskaintzen jarraitzeko.

-**Lan-hitzarmenak betetzeko edo hitzartutako soldata-igoerak egin ahal izateko zailtasunak ere kezka sortzen du.** Kriaren ondorioz sortutako espero gabeko gastuek izango duten eraginak (osasun-materiala, zerbitzu berriak, etab.) **edo finantzaketa pribatuaren jaitsierak ere bai.**

-Oso konplexua da testuinguru horretan kudeaketa-estrategiak planifikatzea eta garatzea.

-**Erakunde publikoek sektorearen espezifikotasuna onartzea eta laguntza espezifikoak ematea eskatzen dute Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeek.**

2. PROPOSAMENEN AZALPENA

Koronabirusaren pandemiak eragindako osasun-larrialdiaren eta egoera larri horrek Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakunde guztiei ekarri dizkien ondorioen aurrean, Sareen Sarearen ustez beharrezkoa da **eragin politikoaren eta komunikazioaren gaineko estrategia** bat garatzea, pertsona eta talde zaugarrienen eta haiei zerbitzuak



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

eskaintzen dizkien eta/edo haiek ordezkatzten dituzten erakunde sozialen eskubideak babesteko.

Estrategia honek Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 6/2016 Legea du oinarrian, Eusko Legebiltzarrak onartua, baita Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Sustapen Estrategia ere, Euskadiko Elkarrizketa Zibilaren Mahaiak eta Eusko Jaurlaritzak onartua.

Eskualdeen Batzordeak 2009an sortutako terminoa da maila anitzeko gobernantza. Gobernuko maila ezberdinetan elkarrekin lan egitean –gure kasuan erkidego-mailan, maila foralean eta tokikoan– eta koordinazioa areagotzean datza, elkarlan horretan hainbat eragile sozial inplikatur, eta ez enpresak eta sindikatuak bakarrik, elkarrizketa sozialaren testuinguruan.

Gizarte gisa ditugun erronka sozial handiei eta,aldi berean, **COVID-19aren egungo pandemiak gure gizarteko talderik zaugarrienei ekarriko dizkien ondorio sozial eta ekonomiko larriei aurre egiteko, politika publikoen gobernantza indartu egin beharko da.**

Ez dago eragile sozialik, bakarka, lurralde bateko edo biztanleriaren sektore bateko beharrez arduratzeko gaitasuna, beharrezko baliabideak edo informazioa dituenik. Egoera honen aurrean, erronka sozialen eta egungo krisiaren ondorioen aurrean modu osagarrian eta koordinatuan jardungo diren eragile sozial anitzen arteko harremanak, kolaborazioa eta elkarlana garatu eta bultzatu behar dituzte administrazio publikoetako gobernuek, funtzio arautzailearekin jarraitu eta zerbitzuak eskaintzeaz gain. Aurrekaririk gabeko krisiak aurrekaririk gabeko Gobernantza berria behar du, gardentasunean, lankidetzan, elkar ezagutzean, parte-hartzean, ikuspuntu-aniztasunean, koordinazioan, sareko lanean eta berrikuntza sozialean oinarrituta.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

I. SAREEN SAREAREN PROPOSAMEN SOZIALAK PANDEMIAREN INPAKTUAREKIN LOTUTA

Sareen Sarearen proposamenak honakoak dira, bi alorretan sailkatuta: lehenik eta behin, pertsona eta kolektibo zaugarrientzako neurriekin lotutakoak, eta, bigarrenik, sektoreko erakundeekin zerikusia duten eskariak.

I. 1. Pertsona, familia eta kolektibo zaugarrienei zuzendutako neurriak eta zaugarritasun-egoera horretara jende gehiago ez iristeko neurriak

Krisi honen ondorioek gizarte osoari eragiten diote eta hala jarraituko dute, baina zaugarritasun-egoeran dauden pertsonen neurri handiagoan eragiten diete. Azken hamarkadako krisi ekonomikoak egoera ahulean edo muturreko zaugarritasun-egoeran utzi zituen pertsona asko. Pertsona horiek oraindik ere ez dute lortu ondorio horiei aurre egitea, eta kontuan izan behar dira ekonomiarekin, osasunarekin edo lanarekin zerikusia duen edozein talka-plan edo politika sozial garatzeko orduan.

Hala, Agenda 2030 planaren garapena funtsezko tresna dela uste dugu, baita gure proposamenei dagokien ere.

Ongizate-estatua funtsezkoa da bidezkoagoa izango den garapen sozial eta jasangarria bultzatzeko. Honi dagokionez, euskal administrazioek kontuan hartu beharko lituzketen hainbat oinarriko printzipio daude:

A. **“Inork ez du atzean geratu behar”**: prestazio sozialetarako sarbide egokia, babes soziala behar duten pertsona guztientzat. Arrisku sozialen multzo handi bati erantzuna ematea. Sarbidea izan behar luketen pertsonak eta familiak identifikatzeko mekanismoak ezartzea.

B. **Pertsonentzako eta familientzako laguntza erreala, esanguratsua eta egokia**: babes sozialeko sistema osoa bizitza duin bat ahalbidetzen duten zenbatekoetan oinarritu behar da. Prestazio ezberdinen zenbateko horiek etengabe eguneratu behar dira, eta ebaluazio-metodo egokien bidez zehaztu behar dira. Bizi kalitatearen araberrako irizpideetan oinarritu behar da finantzaketa, eta irizpide horiek gaur egun gailentzen diren enplegu- eta finantza-irizpideen aurretik egon behar dira. Bazterketa eta desberdintasunak modu esanguratsuan murrizteko benetako ahalmena izatea ahalbidetuko dute jarraibide hauek.

C. **Atzera ez egiteko araua**: orain arte inklusioari, berdintasunari eta justizia sozialari dagokien lortutako aurrerapenetan atzera ez egitea. Inpaktu sozialaren aurretiazko ebaluazio batean oinarrituta egon behar da estaldura- edo sarbide-maila murrizteko edozein proposamen. Hortaz, saihestu egin behar da sistemaren finantzaketa, soilik, egoera ekonomikoaren arabera aldatzea.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

D. Prebentzio-funtzioa: babes sozialeko sistemaren helburu bakarria ez da izan behar arrisku sozialen ondorioak ezabatzea; prebentzioa garatzea ere izan behar du xede.

E. Gobernantza demokratikoa: teknologia sozial egokiak garatzea eta martxan jartzea interes-taldeak eta sistemaren kudeaketan parte-hartzerik ez duten pertsonekin eta komunitateekin lan egiten dutenak modu eraginkorrean inplika daitezten.

Jarraian, **proposamen zehatz** batzuk aurkeztuko dizkizuegu:

--Arrakala digitala ezabatzea. COVID-19aren krisian argi ikusi da mundu analogikotik mundu digitalera pasatu garela bat-batean, eta talde zein egoera asko mundu horretatik kanpo geratzen dira. Bazterketa-sozialerako faktore argia da hori. Behar jakin batzuk dituzten kolektiboei (eskolarako adina duten haurrak dituzten familiak, adinekoak...) Interneterako konexioa erraztea eta haien eskura gailu informatikoak jartzea proposatzen dugu, eta, bereziki, kolektibo jakin batzuei konpetentzia digitalen inguruko prestakuntza eskaintzea. Desgaitasuna duten ikasleentzako irisgarritasuna bermatzea, euskarrietarako eta edukietarako sarbidea ziurtatzeko.

-Pertsona guztiei Osasun Sistemako zerbitzu, diagnostiko-proba eta tratamendu guztiak jasotzeko aukera ematea, bereizketarik gabe eta baldintza berdinetan. Osasun-zerbitzuek beste edozeren gainetik pertsona bakoitzaren duintasuna eta balioa lehenesten dituzten irizpide garbiz osatutako protokolo argiak izan ditzaten bermatzea. Bereziki, arreta lehenesteko etekin sozialean edo gainkostuan oinarritzen diren beste edozein irizpideren aurretik; irizpide horiek bereizketa eragin dezakete desgaitasuna izateagatik, adinagatik, osasun-egoeragatik edo gaixotasun zein patologia kronikoak izateagatik.

-Desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna. Koronabirusarekin zerikusia duten informazio, baliabide, mugikorrek aplikazio, harremanetarako telefono eta osasun-publikoko beste zerbitzu batzuetan irisgarritasuna bermatzea, desgaitasuna duten pertsonak ez baztertzeko.

-Egoitza-zerbitzuetako erabiltzaile-komunitatearen mugikortasun-askatasuna eta baliabideetan parte-hartzea bermatzea, gainerako biztanleen kasuan bezala, haien askatasunaren aurkako murrizketa ez-legitimorik gerta ez dadin, biztanleria osoari ezar lezikizkiekeen murrizketa orokorrez haratago.

-Egoitzetako arreta-eredua eraldatzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen eta prestazioen eskaintza (etxeko laguntza-zerbitzuak, laguntza pertsonala, etab.) **zabala, anitza eta malgua izan dadin bermatzeko, bizitza independentea eta desinstituzionalizazio-prozesuak erraztera bideratua.** Egoitzetako erabiltzaileek aldi baterako irten nahi dutenean (kutsatzeko beldurragatik edo beste edozein arrazoiengatik), etxean zerbitzua edo laguntza jasotzeko alternatibak dituztela ziurtatzea, irtetea posible izan dadin. Pandemia-egoerak irauten



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

duen bitartean plaza erreserbatuko zaiola bermatzea. Etxeko laguntzaren bidezko arreta-eredu berriak aztertzea, pertsonen haien etxeetan bizitzen jarraitzea ahalbidetzeko.

-Familiakoen zaintzari duintasuna ematea, neurri hauek hartuz, beste batzuen artean: Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa malgutzea, Familia Giroan Zaintzeko Prestazio Ekonomikoa luzatzea eta zaintzaileen babes sozialerako sistemen estaldura zabaltzea.

-Menpekotasun-balorazioak eta bakarkako arreta-programaren elaborazioa azkartzea, baita haien berrikuspenak eta aldaketak ere.

-Desgaitasuna duten pertsonen mantentzerako eta/edo errehabilitaziorako beharrezkoak diren tratamendu berezietarako sarbidea bermatzea.

-Laguntza pertsonaleko eta laguntza sozialeko laguntzak indartzea, eskatzen dituzten pertsonen beharren arabera.

-Laguntza psikologikoa eta emozionala eskaintzen duten zerbitzuak indartzea, kolektibo zaurgarrien behar emozionalerako erantzun ahal izateko, honakoen ondorioz: krisiaren inpaktua, kutsatzeko beldurra, etorkizunaren gaineko ziurgabetasuna, bakartze-egoerak edo gertuko laguntza-harremanak galdu izana, etxetik irten ezina, lanik gabe geratu izanagatik sortutako zailtasun ekonomikoak, etab.

Desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien kasuan, **laguntza-baliabideak bermatzea** (eguneko arreta, atsedeen hartzea...) eta **arreta pertsonalizatua indartzea**, hainbat euskarriren bidez (osasun-arreta, eta arreta psikologikoa edo psikiatrikoa).

-Nahi gabeko bakardadearen detekzioa, laguntza eta prebentzioa bultzatzea. Konfinamendu-aldiak agerian utzi du pertsona batzuek bizi duten bakardadea, bereziki, adinekoek eta desgaitasuna duten pertsonen. Etxean laguntza pertsonalizatua emateko formulak prestatzea proposatzen dugu.

-Behar duten haurrei bideratuta, aisialdirako neurri eta hezkuntza-errefortzu zehatzak.

-Indarkeria-egoerak bizi dituzten emakumeei laguntzeko eskuragarri dauden baliabideak eta tresnak hedatzea, haien egoerara eta beharretara egokitutako bitartekoak eta tresnak ezarri, emakume horiei arreta eta babesa eskaintzeko.

-Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren arteko osagarritasun egokia garatzea. Desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien kasuan, beste prestazio batzuekiko osagarritasuna gaitzea; adibidez, ardurapeko seme-alaben familientzako prestazioarekiko osagarritasuna.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

-Desgaitasuna duten pertsonak eta bazterketa-sozialean dauden edo egoteko arriskuan daudenen lana **mantentzeko** apustua egitea, eta, horretarako, **laneko inklusio-prozesu** berriak irekia, inklusiboa eta irisgarria izango den merkatu baterantz bideratzea.

-**Enplegu- eta jarduera-tasak hobetzea**, langabezia-tasa murriztea eta ohiko lanpostuetan desgaitasuna duten pertsonen eta bazterketa-sozialean dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen inklusioa handiagoa izan dadin pausoak ematea:

- **Lagundutako Enpleguaren Metodologia** eta Programak indartzea.
- 50 langiletik gorako enpresek **lanpostuen % 2 gordetzeko kuota bete dezaten** neurriak indartzea (1/2013 ELD).
- Desgaitasuna duten pertsonentzat **enplegu publikorako** sarbidea handitzea.
- Enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten bazterkeria-egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonentzako **azterketa eta bitartekaritza zerbitzuak** ezartzea.
- **Gordetako merkatu publikoen** neurria betetzen dela bermatzea, desgaitasuna duten pertsonen eta bazterketa-sozialean dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen lan-aukerak sortzeari dagokionez ekarpen publikoa hobetzeko.

-**Lanaren eta familiaren arteko kontziliaziorako behar adinako laguntzak bermatzea**, genero-ikuspegia kontuan izanda. Ordulegien arrazionalizazioa bultzatzea, gizartearen eta lanaren antolaketa egokia izan dadin eta Europako estandarretatik gertuago egon dadin.

-**Etxebizitza egoki eta duin baterako sarbidea**. COVID-19aren krisiarekin agerian geratu dira etxebizitzaren eskasiarekin, garestitasunarekin eta baldintza txarrekin lotutako arazoak ere. Izan ere, zaugarritasun-egoeran zeuden pertsona askok ezin izan dituzte alokairua edo hipoteka ordaindu, eta, gainera, argi naturalik, espazio pertsonalik eta instalaziorik gabeko espazioetan pasa dute itxialdia. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa (ekainaren 18ko 3/2015 Etxebizitza Legea) benetan betetzea eskatzen dugu, beharrezko baliabideak ez dituzten pertsonen etxebizitza egoki, duin eta irisgarri baterako sarbidea bermatuz eta etxebizitzaren funtzio soziala sustatuz.

-**Zahartze aktiborako politikak bultzatzea**. Ahalduntzea, inguru lagunkoia eta parte-hartze soziala dira politika horien ezaugarriak. Izan ere, prebentzio-izaera dute, bizikaltatea hobetzen dute eta Osasun Sistemari eta Gizarte Zerbitzuen Sistemari aurreztea ahalbidetzen dute.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

I.2 Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeen eskariak

-Pandemiaren edo hark eragindako krisiaren eraginez sortutako alerta-egoeren edo larrialdi sozialen aurrean lotura gisa jardungo duen talde eragile bat sortzea, Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren Batzordearen menpe egongo dena eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Sailaren gidaritzapean jardungo duena. Talde horrek Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren arteko elkarrizketa zibil aktiboa eta iraunkorra bideratuko du, eta lortutako emaitzak eta martxan jarritako ekintzak ebaluatuko ditu aldian behin.

Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokia eta Sektorre Sozialaren Euskal Behatokia monitorizatzea, haien behatze-eremuetan krisiak izan dituen ondorio kezagarrien inguruan.

-Sektorre soziala krisia kudeatzeko funtsezko zerbitzua dela aitortzea. Ezinbesteko baliabideak eta hornigaiak esleitzean, lehenetasuna ematea arriskuan dauden sektorre sozial zaugarrirei, eta laguntza eta arreta eskaintzen duten langile profesionaleri eta boluntarioeri:

- Babes pertsonalerako ekipoak.
- Diagnostiko-proba masiboak eta azkarrak.
- Laguntzaileen mugikortasuna bermatzea, arauen bidez eta praktikan, beharra duten pertsoneri lurraldean arreta eskaini eta lagundu ahal izateko.
- Etab.

-Jaurlaritzaren aldetik Sareen Sarearekin hitz egiteko eta aktiboki entzuteko konpromisoa, pandemiaren inpaktu soziala konpentsatzeko eta gutxitzeko neurri esanguratsuak hartu aurretik, eta Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeei eta haien esku-hartzeen hartzaileri eragiten dieten kontu guztietan.

-Pandemiaren ondorioz Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren finantzaketa ez murriztea, bereziki, erakunde sozialek hitzarmen edo kontratu bidez kudeatzen dituzten zerbitzu eta arreta sozialak itxi, eten edo murriztearen ondorioz (alarma-egoeraren eraginez).

-Erakunde sozialei baliabideak ematea, talde sozial zaugarriaren koronabirusak izan duen inpaktua gutxitzeko programetara eta ekintzetara bideratu ahal izateko.

-Aurrekontuak birbideratzea eta haien egokitzapenak baimentzea, programen eta ekintzen lehenetasuna pandemiaren inpaktu soziala arintzea izan dadin, eta, horretarako, koronabirusarekin lotutako ezohiko arreta sozialaren ondorioz erakundeek izan dituzten edo izango dituzten gastuak hautagarri gisa ezartzea.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

-Erakunde sozial kudeatzaileei haien jarduna berriro orientatzen eta egokitzen uztea, pandemiaren eragin sozialei eta bazterketari aurre egin ahal izateko.

-Hirugarren Sektore Sozialeko **diru-laguntza nominatiboekin edo konkurrentziakoekin zerikusia duen guztia azkartzea eta larrialdi-izaera ematea**, ahal den neurrian diru-laguntza horien tramitazioa eta ordainketa aurreratzeko, erakunde sozialek ahalik eta lasterren funtsak izan ditzaten krisi-egoeran haien jarduna hobetzeko.